

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko "Santo Tomás" 9. sektoreko 53. poligonoko 414 lurzatiaren xedapen-azterketari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 12an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Santo Tomás 9. sektoreko 53. poligonoko 414 lurzatiaren xedapen-azterketari –zein T. E. A jaunak aurkeztu baitu Maceauto Automoción SL ordezkaturaz–, 2020ko maiatzaren 18an erregistratutako proiektuarekin bat.

2. Aldaketaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea, eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea –, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 12an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE